

FAMILIAN

asko gara





Sortzailea: Ara!Gorputz

Gidoia: Alazne E. Iparragirre

Maketatzailea: Oihane B. Muñoz

Berrikuspen interraziala: Wayra elkartea



Euskara zuzentzailea: Maider U. Garbizu

Gure sareak: BDS Koop, Olatukoop eta Larrutik

Inprimatzailea: Michelena artes gráficas

Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia



Gurekin harremanetan jartzeko: info@aragorputz.eus



*Ipuin honetako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu,
gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.*


Kiribiltxori

eta lagunei

Kaixo:

Peru naiz, 4 urte ditut eta
dinosaurioak asko gustatzen zaizkit.

Jende askorekin bizi naiz etxe polit
batean: nire ama Oihanarekin, Bixi
txakurrarekin eta Xanti eta Maialen
pisukideekin.




Etxetik eskola ikusten dut, eta bertan lagunekin jolastea maite dut. Nire jolas gogokoena kromoak trukatzea da.

Nire irakasleak Aratz du izena, eta batzuetan etxeko leihotik agurtzen dut.



Azken egunetan pentsakor nabil,
eskolan familia argazki bat eskatu
digute eta ez dakit ote dudan ere.



Amari argazkia behar dudala esan diot. Kaxoi guztietan bilatu ditugu familia argazkiak, baina ez dugu denok agertzen garenik topatu.

Triste jarri naiz.



Amatxok orduan ideia bat izan du:

- Peru, zer iruditzen zaizu denok
elkarrekin bazkari bat antolatzen
badugu?

Eta nik irrikaz erantzun diot:

- Baaaai!!! Eskolara eramateko
argazkia aterako dugu!



Asko gara eta asko maite dugu
elkar, kontent nago denok
elkartu garelako parkean.




Pozik nago nire familia argazkiarekin! Gaur eskolan denei azalduko diet nolakoa den nire familia eta zer egiten dudan izekorekin, osabarekin, amumerekin...



Hau lona da, bizikletaz etortzen da nire bila eskolara.

Bizikletaz ibiltzen gara elkarrekin, batzuetan azkar-azkar joateko eskatzen diot, baina beste batzuetan beldurtu egiten naiz eta polikiago joaten da.

Askotan joaten gara mendira animaliak ikustera.




Hauek Omar, Khadija eta Mamadou dira, nire bizilagunak eta familiaren partaideak. Haiekin bazkaltzen dugu igandeetan. Mamadou nire lagunak esan zidan Khadijaren sabelean umetxo bat dagoela eta Faraxan izena jarriko diotela. "Zoriontsua" esan nahi du somalieraz.


Familia handituko zaigu!



Hau amume Tere da, eta beste herri batean bizi da. Normalean trenez etortzen da bixitan eta elkarrekin meriendatzen dugu. Patata tortilla eta mahatsak elkarrekin jatea gustuko dugu.



Hau Kris da eta oso mendi altu
batean bizi da. Amatzok eta
nik gutunak idazten dizkiogu,
eta berak batzuetan opariak
bidaltzen dizkigu handik.



Hauek Bernat eta Fátima dira.
“Djambe” izena duen danbor
berezi bat jotzen dugu elkarrekin.
Asko gustatzen zait ateratzen
duen soinua dantzatzeko! Haien
etxean kous kousa jatea ohikoa
da eta niri asko gustatzen zait.






Hauek Amaiur eta Eider dira.
Amatxo lanera joaten denean,
haiek zaintzen gaituzte Mamadou
eta ni. Ahateak ikustera joaten
gara elkarrekin.




Xanti eta Maialenek iluntzeetan ipuin bat kontatzen didate lo goxo egiteko. Otsoei beldurra diet, eta lokartzeko arazoak ditudanean, nirekin gelditzeko eskatzen diet.



Poz-pezik atera naiz eskolatik nire familia guztia nolakoa den erakutsi ondoren. Ama etorri da nire bila eta a zer besarkada eman diogun elkarri!





Eskuartean duzun ipuin honetan elkar asko maite duen familia zoragarri baten berri izango duzu. Azal kolore, kultura eta erlijio ezberdinek elkarbizitzen duten elkar zaintza sarea dugu bertan hizpide.

Peruk lau urte ditu eta bere familiako kideak aurkeztuko dizkigu ipuinean zehar. Bakoitzarekin abentura ezberdinak bizitzen ditu.

Ba al zatoz gurekin? Badago zuretzako lekua!

